## DONOSTIAKO UDALA

### Idazkaritza Nagusia

*Donostiako Autobus Geltokiaren Araudiaren Aldaketa behin betikoz onartzea.*

2011ko martxoaren 25eko Udalbatzan ondorengoaren berri eman zen:

«Donostiako Udalak, 2010eko abenduaren 27an egindako osoko bilkuran, Donostiako Autobus Geltokiaren Araudi aldaketari hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Hasierako onarpen horren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen 2011ko urtarrilaren 13an, eta, hala, jendaurrean jartzeko eta entzuteko aldia hasi zen, 30 lanegunerako.

Jendaurreko epea bukatuta, ez da iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu. Ondorioz, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 49. Artikuluko azken paragrafoan ezarrita dagoenez, ordu arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko onartutzat jo behar da eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN aldaketen testua argitaratuko da.

Horiek horrela, Udalbatzari jakinarazten zaio, Donostiako Udalbatzaren Organo Araudiko 113. Artikuluan xedatutakoa jarraituz, Donostiako Autobus Geltokiaren Araudia aldatzea erabaki zuen akordioa behin betiko bihurtu dela».

Ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtsoa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean. Esandako epea argitalpen hau eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 70.2 artikuluan agintzen duena betez, bestetik, behin-betiko onartutako araudia argitara ematera goaz.

Donostia, 2011ko apirilaren 1a.—Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Idazkari Nagusia. (4652)

DONOSTIAKO AUTOBUS GELTOKIAREN ARAUDIA

1. KAPITULUA. ARAUBIDE OROKORRA

(...)

*2. artikulua. Aparkaleku publikoa.*

Geltokiak aparkaleku publiko bat ere izango du. Aparkaleku horrek, era berean, zerbitzu egingo die trenbide geltokiari eta -oro har- herritar guztiei.

(...)

2. KAPITULUA GELTOKIAREN USTIAPENA

(...)

*12. artikulua. Zirkulazioa eta zerbitzuak ustiatu eta kudeatzea.*

Barne araudian ezarriko dira autobusen eta bidaiarien zirkulazioa eta egiten diren zerbitzuak ustiatu eta kudeatzeko baldintza zehatzak. Araudi hori emakida duen enpresak proposatuko du, eta Udalaren onarpena beharko du. Barne araudian jasoko dira, beharrezko jotzen diren bestelako baldintzez gainera, ondorengo hauei dagozkien baldintzak:

## AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

### Secretaría General

*Aprobación definitiva de la Modificación del Reglamento de la Estación de Autobuses de Donostia-San Sebastián.*

En la sesión plenaria de 25 de marzo de 2011 se dio cuenta de lo siguiente:

«El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 27 de diciembre de 2010, acordó aprobar inicialmente la modificación del Reglamento de la Estación de Autobuses de Donostia-San Sebastián.

El 13 de enero de 2011 se insertó en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa anuncio de la citada aprobación inicial, abriéndose el plazo de exposición pública por plazo de treinta días hábiles.

Dentro de dicho plazo no consta que se haya presentado sugerencia ni reclamación alguna, por lo que, de conformidad con lo dispuesto en último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local, puede entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial y procede, por tanto, la publicación del texto íntegro de las modificaciones en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Por lo expuesto, de conformidad con el artículo 113 del Reglamento Orgánico de Pleno, se da cuenta al Excmo. Ayuntamiento Pleno de la aprobación definitiva de la modificación del Reglamento de la Estación de Autobuses de Donostia-San Sebastián».

Este acuerdo pone fin a la vía administrativa y podrá ser impugnado directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses. Este plazo se computará desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio.

De acuerdo con lo dispuesto en el art. 70.2 de la citada Ley 7/1985, a continuación se procede a la publicación del citado reglamento.

Donostia-San Sebastián, a 1 de abril de 2011.—El Secretario, Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga. (4652)

REGLAMENTO DE LA ESTACIÓN DE AUTOBUSES DE DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

CAPITULO 1. REGIMEN GENERAL

(...)

*Artículo 2. Aparcamiento público.*

La estación contará con un aparcamiento público que prestará, igualmente, servicio a la estación de ferrocarril y a la ciudadanía en general.

(...)

CAPITULO 2. EXPLOTACIÓN DE LA ESTACIÓN

(...)

*Artículo 12. Explotación y gestión del tráfico y servicios.*

Los términos concretos de explotación y gestión del tráfico de autobuses y viajeros y viajeras, así como de los servicios que se presten se determinarán en el Reglamento de Régimen Interior que a propuesta de la empresa concesionaria será aprobado por el Ayuntamiento. En el mismo se recogerán, además de cualesquiera otros que se entiendan necesarios los términos en relación con:

— Autobusak geltokira sartzea.

— Nasen erabilera.

— Nasak erabiltzeko eta bidaiariak hartzeko eta uzteko denborak.

— Autobusak geltokitik irtetea.

— Txartelak egitea.

— Sarbide publikoko edo mugatuko eremuak eta instalazioak.

— Geltokiaren web orria egitea.

— Zerbitzuak erabiltzea (erabiltzaileen segurtasunerako eta arretarako zerbitzuak, komunak, kafetegia eta kontsigna, baldin bada).

(...)

3. KAPITULUA. APARKALEKUAREN USTIAPENA

*18. artikulua. Aparkalekuaren erabilera.*

Aparkalekuak erabilera publikoko tokiak (txandan erabiltzeko) eta erreserbatuak izango ditu.

*19. artikulua. Erabilera.*

(aurreneko paragrafoak lehengo testuarekin jarraitzen du).

Erreserbatutako aparkalekuak enpresa esleipendunak emango ditu ezeren mugarik gabe.

Aparkaleku bakoitza titularrak berak erabili behar du hartarako baimena duen ibilgailuarekin, eta inolaz ere ez dago beste bati uzterik edo errentan ematerik.

Aparkalekua erabiltzeko emakidaren epeak ez dauka Autobus Geltokiaren zerbitzu publikoaren emakidak izango duen epea baino handiagoa izaterik inolaz ere.

*21. artikulua. Tarifak.*

Udalak zehaztuko ditu txandan erabiltzeko aparkalekuen tarifak. Tarifa horiek aplikatzean, une horretan indarrean den araudia bete beharko da.

Erreserbatutako aparkalekuak enpresa esleipendunak emango ditu berak jartzen duen prezioan. Erabiltzen uzteko kontratua egin baino lehen, kontratuaren zirriborroa bidali behar dio enpresa esleipendunak Udalari, Udalak onar dezan.

*23. artikulua. Txandakako aparkalekuak erabiltzen dituzten pertsonen eskubideak eta betebeharrak.*

(oraingo araubide berbera).

*23 (bis) artikulua. Erreserbatutako aparkalekuak erabiltzen dituzten pertsonen eskubideak eta betebeharrak.*

1. Hauek dira erreserbatutako aparkalekuen titularrek izango dituzten eskubideak:

a) Erabilera eskubidea den epe guztian erabiltzea aparkalekua, norberak, eta, betiere, hartarako baimendutako ibilgailuarekin.

b) Aparkalekuaren elementu komunak eta instalazioak erabiltzea, kontzesionarioak finkatutako baldintzetan.

c) Aparkalekuari aplikatzen zaion arautegia eta dokumentazioa eskura edukitzea.

d) Esleipendunari eta Udalari kexak aurkeztea, bere eskubidea errespeta dadin, zerbitzuaren ohiko jardueran dauden nahasketak amai daitezen edo kontzesioaren titularrarekin dituen gatazketan esku har dezaten.

— Entradas de autobuses en la estación,

— Utilización de dársenas.

— Tiempos de uso de dársenas y de carga y descarga de viajeros y viajeras.

— Salidas de autobuses de la estación.

— Expedición de billetes.

— Espacios e instalaciones de acceso público o restringido.

— Creación de página web de la estación.

— Uso de los diferentes servicios (servicios de seguridad y atención a las personas usuarias, servicios higiénicos, cafetería y consigna de equipajes, en su caso).

(...)

CAPITULO 3. EXPLOTACIÓN DEL APARCAMIENTO

*Artículo 18. Destino del aparcamiento.*

El aparcamiento contará con plazas de uso público en régimen de rotación y con plazas reservadas.

*Artículo 19. Uso.*

(el párrafo primero mantiene el texto inicial).

Las plazas de estacionamiento reservadas serán adjudicadas por la empresa concesionaria libremente.

Las plazas deberán ser utilizadas directamente por sus titulares con los vehículos autorizados, no pudiendo en ningún caso ser arrendadas ni cedidas a terceros.

El plazo de cesión de uso de la plaza no podrá superar en ningún caso el plazo de la propia concesión del servicio público de Estación de Autobuses.

*Artículo 21. Tarifas.*

La determinación de las tarifas de las plazas de rotación corresponderá al Ayuntamiento debiendo respetarse en su aplicación la normativa vigente en cada momento.

Las plazas reservadas se adjudicarán por la empresa concesionaria por el precio que fije libremente. El concesionario deberá remitir al Ayuntamiento para su aprobación un borrador de contrato de cesión de uso antes de su formalización.

*Artículo 23. Derechos y obligaciones de las personas usuarias de las plazas de rotación.*

(con la misma regulación que ahora).

*Artículo 23 (bis). Derechos y obligaciones de las personas usuarias de las plazas reservadas.*

1. Los titulares de las plazas reservadas ostentarán los siguientes derechos:

a) Usar la plaza en persona y con el vehículo autorizado durante el plazo de vigencia del derecho de uso constituido.

b) Utilizar los elementos comunes y las instalaciones que comprenda el aparcamiento en las condiciones fijadas por el concesionario.

c) Acceder a la normativa y documentación de aplicación en el aparcamiento.

d) Presentar quejas a la empresa concesionaria y al Ayuntamiento a fin de que sea respetado en su derecho otorgado, o se hagan cesar las perturbaciones del normal desempeño del servicio, o intervengan en los conflictos que mantenga con el titular de la concesión administrativa.

e) Kontzesioaren titularraren edo Udalaren babesa eskatzea plaza erabiltzeko orduan. Besteak beste, bere tokia normal erabiltzea galarazten dion ibilgailua edo beste zerbait segituan kentzea ere izan daiteke babes hori.

Alde horretatik, erabiltzaileak salatu eta kontzesioaren titularrak edo kudeaketa bulegoak salaketaren izapideak eginez gero, Udaltzaingoak eskumena izango du, berariaz, ez dagokion aparkalekuan edo aparkalekuaren titularrak bere tokia erabiltzea galarazteko edo oztopatzeko moduan den ibilgailua handik hartu, kendu eta Udalaren Biltegira eramateko.

f) Kontzesioaren titularrak informazioa ematea aparkalekuko funtzionamendu-aldaketei buruz, eta beharrezkotzat jotzen diren eta bere eskubideari eragiten dioten obren berri ematea.

2. Hauek dira erreserbatutako aparkalekuen titularrek izango dituzten betebeharrak:

a) Titularrak berak erabiltzea, baimendutako ibilgailuaz, izendatutako aparkalekua, beste inori utzi edo errentan eman gabe.

b) Ibilgailua esleitutako plazan aparkatzea, lapurreten kontrako segurtasun-neurri ohikoak hartuz (ateak eta leihoak ixtea eta ezer agerian ez uztea).

c) Aparkalekuaren barruan argi laburrak piztuta eramatea.

d) Aparkalekuaren barruko seinale bertikalak eta horizontalak errespetatzea, bai eta beste edozein zirkulazio-arau ere.

e) Ibilgailu- edo bizileku-aldaketen berri ematea aparkalekuko administratzaileari edo kudeaketa-bulegoari.

f) Aparkalekuaren prezioa eta mantentze-gastuen kuota ordaintzea, kontratuan hala jartzen badu, adierazitako epeetan.

g) Emandako eskubidea ez kargatzea, hipotekatzea edo edozein murrizketen mende jartzea.

h) Eskubidea amaitzean aparkalekua hustea.

i) Udalak edo esleipena duen enpresak aparkatzeko baimena duten ibilgailuentzat erabakitako eta emandako identifikazio-ikurrak erabiltzea.

j) Kontzesionarioari uztea plazen erabilera noiznahi ikuskatzen eta zuzenean kontrolatzen, eta kontzesionarioak edo Udalak bere jardueren barruan plazari buruz eskatutako dokumentazio guztia ematea.

l) Instalazioak behar bezala erabiltzea, eta hura mantentzen eta garbi edukitzen laguntzea kontzesionarioari.

l) Obrak doazenean edo interes publiko behar bat dagoenean, udalak hala eskatuz gero aparkalekua hustea.

e) Solicitar la protección del titular de la concesión o del Ayuntamiento, en su derecho al uso de la plaza, y que podrá alcanzar hasta el inmediato desalojo del vehículo u elemento que le impida el normal uso de la plaza.

En este sentido, y previa denuncia del usuario de la plaza tramitada por el titular de la concesión o por la oficina administrativa de gestión, la Guardia Municipal esta expresamente habilitada para movilizar, retirar y trasladar al Depósito Municipal el vehículo que se halle o ocupando indebidamente una plaza o impidiendo o dificultando de algún modo el uso de su titular.

f) Ser informado por el titular de la concesión de las modificaciones ordenadas en el funcionamiento del aparcamiento y de las obras que en su caso se considere necesario realizar y afecten a su derecho.

2. Los titulares de las plazas reservadas tendrán las siguientes obligaciones:

a) Utilizar, en persona y con el vehículo autorizado, la plaza adjudicada, no pudiendo ni arrendar ni ceder a terceros la plaza.

b) Aparcar el vehículo dentro del espacio adjudicado, adoptando las medidas normales de seguridad propias contra robos, como cierre de puertas, de ventanas y no dejar objetos a la vista.

c) Circular en el interior del aparcamiento con las luces de cruce encendidas.

d) Respetar dentro del aparcamiento la señalización vertical y horizontal existente, así como cualesquiera normas de circulación.

e) Informar al administrador del aparcamiento o a la oficina administrativa de gestión sobre los cambios de vehículo o de residencia.

f) Abonar el precio de la plaza y la cuota de gastos de mantenimiento, en el caso de que así se establezca en el contrato, en los plazos señalados.

g) No gravar, hipotecar o someter a cualquier tipo de restricción el derecho otorgado.

h) Desalojar el aparcamiento ante la extinción de su derecho.

i) Utilizar los distintivos de identificación que el Ayuntamiento o la empresa concesionaria decida poner en marcha y entregue para los vehículos autorizados a aparcar.

j) Permitir en cualquier momento la inspección y el control directo por parte del concesionario del uso de las plazas, facilitando incluso cuanta documentación le sea requerida en el ejercicio de sus funciones por el concesionario o por el Ayuntamiento, relativa a la plaza de la que es titular.

k) Hacer un uso adecuado de las instalaciones colaborando con el concesionario en su mantenimiento y limpieza.

l) Desalojar el aparcamiento ante el requerimiento municipal motivado por la realización de obras o ante una necesidad de interés público.